

## PROFESIO SANITARIOEN ETENGABEKO PRESTAKUNTZAKO EUSKAL KONTSEILUA

### 2001EKO JARDUEREN MEMORIA

#### Ohiko Batzarrak

Ebaluazio Batzordeak 18 batzar egin ditu hamabosteko periodikotasunez (oporraldietan izan ezik) eta batzar bakoitzean 19 eskabide ebatzi ditu, batez beste. Batzorde Iraunkorra birritan batzartu da (apirilean eta urrian). Sailaren egituraren aldaketak egin direla-eta, Osoko Bilkurak ezin izan du urte osoan batzarrik egin.

#### Jardueren kreditazioa

2001eko urtean 328 eskabide jaso dira. Jasotako 328 eskabideetatik 217 lehenengo edizioak izan dira (%66), 111 ondorengo edizioak (%34), 247 kreditatu dira (%75), 51 baztertu dira (%15,5), 28 eskabide hornitzaileak erretiratu ditu (%8,5) eta 2 (%6) Osasuneko Sistema Nazionalako Etengabeko Prestakuntzako Batzordeari bidali zaizkio.

HELBURUKO POPULAZIOA	KREDITATUTAKO JARDUERAK	BAZTERTUTAKO KREDITAZIOAK	BATZORDE NAZIONALARI BIDALITAKOAK	ERRETIRATUTAKO ESKABIDEAK
MEDIKUNTZA	36	3		18
ERIZAINZUA	129	18		7
FARMAZIA	20	2	2	1
MULTIDIZIPL.	57	18		2
FISIOTERAPIA	2			
ALBAITARITZA	2	2		
ODONTOLOGIA	1			
PSIKOLOGIA		6		
GUZTIRA	247	49	2	28

**Baztertutako kreditazioei** dagokienez, 1 (%2) iraupen laburrekoa izatearren baztertu da, 2 (%4) sistema kreditatzailean sartuta egon ez diren profesio sanitarioetarako izatearren, 4 (%8) prestakuntza erregulatuak izatearren, 10 (%20) kalitatean 1a ez gainditzearren, eta 34 (%66) etengabeko prestakuntzat ez jotzearren profesio sanitarioetarako (osasunaren zientzietan gai ez-espezifikokoak, dibulgazio-izaerakoak, langilearen autozainketarako edo enpresaren antolaketa-aspektuetarako mugatzen diren edukikoak, sistema informatikokoak edo diana-populazioari ez dagozkion gaiak).

Eskabiderik eta kreditaziorik gehien aurkeztu dituen **talde profesionala** erizaintzakoak izan da (%52,5); bigarren, medikuntzakoak dator (%16) eta hirugarren farmaziakoak (%8). Multidiziplinarrek %23a osotzen dute, %1a albaitariei kreditatutako jardueri dagokie, beste %1 fisioterapeutei eta %0,5a odontologoei.

Kreditatutako jardueren %100 presentzialak dira. Jarduera mistoak kreditatzeko, bi eskabide aurkeztu dira, baina biak estatu-esparrukoak direlako, Osasuneko Sistema Nazionaleko Etengabeko Prestakuntzako Batzordera bidali dira. **Jarduera-motari** dagokionez, %7 Kongresuak eta jarduera asimilagarriak (iraupen laburreko masiboak) izan dira; gainerakoak, %90, ikastaroak eta antzerakoak (tailerrak, mintegiak).

Kreditatutako jardueren %76k 21 ordu baino gutxiagoko **iraupena** dute. Ehuneko 19k 21 eta 40 ordu bitartean irauten dute; % 2,5ek 41 eta 80 ordu bitartean, eta %2,5ek 80 ordu baino gehiago. Ikastordu-kopuruaren banaketa asimetrikoa da: gutxienez 2,5 ordu eta gehienez 160.

Kreditatutako jardueren %52ak 21 eta 30 bitarteko **partaide-kopurua** du. Gainerakoak oso aldakorra da: gutxienezkoa 12koa, eta gehienezkoa 600koa. %21k 21 ikasle baino gutxiago du, %14k 31 eta 40 bitartean, %5k 41 eta 50 bitartean, eta %8k 50 baino gehiago.

Kreditatutako jardueren **konponente kualitatiboari** dagokionez, jardueren %72a 1,4 eta 2,2 bitartean aurkitzen da. Ehuneko 11a 2,2tik gora, eta %17a 1,4tik behera.

**Hornitzailerik** garrantzitsuena Osakidetza da, eskabideen %50a du-eta (Zerbitzu Zentralak, Ospitaleak, Ikerkuntza Unitateak eta Irakaskuntza Unitateak). Ondoren, Profesionalen Elkargoak datoz %30rekin.

ENTITATE HORNITZAILEA	KREDITATUTAKO JARDUERA-KOP.
OSAKIDETZA-Zerb. Zent.	91
GIPUZKOAKO ERIZAINZAKO ELKARGOA	19
BIZKAIKO ERIZAINZAKO ELKARGOA	16
SYCOM TRAINING SYSTEMS	12
BIZKAIKO BOTIKARIEN ELKARGOA	11
PARTIKULARRAK	11
ARABAKO MEDIKUEN ELKARGOA	6
UMADE FORMAZIOA	5
BIZKAIKO ALBAITARIEN ELKARGOA	5
MEDIKUNTZA FAM. ETA KOMUNITARIOKO IRAKASKUNTZA UNITATEA (BIZKAIA)	5
GURUTZETAKO OSPITALEA	5
LEHEN MAILAKO ATENTZIOKO IKERKUNTZA UNITATEA	4

(BIZKAIA)	
SANTIAGO OSPITALEA	4
GIPUZKOAKO BOTIKARIEN ELKARGOA	4
GOSIKER (IKERKUNTZA-ELKARTEA)	3
TXAGORRITXUKO OSPITALEA	3
ARABAKO ERIZAINZAKO ELKARGOA	3
OSASUN SAILA	3
ANGULEMAKO ZERBITZU MEDIKOAK, S.M.	3
GASTEIZKO ERIZAINZAKO ESKOLA	2
GIPUZKOAKO MEDIKUEN ELKARGOA	2
ARABAKO BOTIKARIEN ELKARGOA	2
ARABAKO IKERKUNTZA UNITATEA	2
SANTINVEST (SANTIAGO OSPITALEKO IKERKUNTZA ELKARTEA)	2
GALDAKAOKO OSPITALEA	2
ARABAKO OSPITALE PSIKIATRIKOA	2
BIZKAIKO ODONTOLOGOEN ELKARGOA	2
ANESTESIA ETA BIZKORKETAKO EUSKAL ELKARTEA	2
PEDIATRIAKO EUSKAL ELKARTEA	2
GIPUZKOAKO ALBAITARIEN ELKARGOA	1
MEDIKER-POLIKALTE	1
TERAPIA FAMILIARREKO EUSKAL ESKOLA	1
ARABAKO ODONTOLOGOEN ELKARGOA	1
OFTALMOLOGIAKO INSTITUTU KLINIKO-KIRURGIKOA	1
A.E.P.KO OSPITALEZ KANPOKO PEDIATRIAKO SAILA	1
DIABETES-HEZITZAILEEN ELKARTEA	1
GIPUZKOAKO DIABETIKOEN ELKARTEA	1
FUDEN (ERIZAINZTA GARATZEKO FUNDAZIOA)	1
AVNEAR-TD	1
GIPUZKOAKO POLIKLINIKOA, S.A.	1
GERIATRIA ETA GERONTOLOGIAKO ESPAINIAR ELKARTEA	1
SANTURTZI-KABIEZESKO TABAKISMO UNITATEA	1
EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA	1

Kreditatutako jardueren **eremuak**, funtsez, klinikoak dira (atentzio zuzenekoak) profesio guztietan (%69 medikuntzan, %80 erizaintzan, %50 farmazian), jarduera multidiziplinarretan izan ezik (%39). Eremu ez-klinikoen (zeharkakoen) artean zenbait jarduera kreditatu dira eta, funtsez, ondoko eremuak dira euren kokapena: ikerkuntza, komunikazioa, kalitatea, osasun-promozioa eta balio etikoak.